

Artatzako euskal testua. Transkripzioa eta hizkuntza azterketa

PATXI SALABERRI ZARATIEGI

SARRERA

Balvino Garzia de Albizuk aldizkari honetan berean dioenez, aztergai hartu dugun testua Barindaoko etxe batean agertu zen, gaitzat erlijioa eta hezkuntza zuten liburuen artean. Liburu horiek Emausko trapuketarien eskuetara iritsi ziren eta hauek, zuhurkiro jokatzuz, aurkikundearen berri eman zuten. Jendeak Joxemiel Bidadorrek *Diario de Noticias* nafar egunkarian 2001eko azaroaren 18an argitara ateratako “El decálogo de Baríndano” izeneko artikulua bidez izan zuen testua ezagutzeko abagunea. Bertan, izkribuan agertzen diren lehen zortzi aginduen transkripzioa egiten da eta gero, llabur-llabur, testuko hizkeraren xehetasun batzuk azaltzen dira. Dena dela, originala irakurririk garbi ikusten da transkripzioan badela huts pare bat, edo, zehazkiago erran, bi aldiz errepikatzen den erratua. Izan ere, garbi baino garbiago dago Bidadorrek *ez zazogula* transkribatzen duena *ezzarogula* irakurri behar dela, beharbada –hau halarik ere gure uste erdi edo erabat ustela izan daiteke–, ameskoarrek *etzarogula* ebakitzen zutena.

Testuaren egilea, Garzia de Albizuk aurkitu duenez, Zudairin 1753an sortu eta Artatzako bikario izan ondoren 1823an zendutako Juan Vicente Diaz izan zen. Hortaz, erran dezakegu bertan ageri den hizkera Ameskoabarrenean XVIII. mendearen bukaeran edo XIX.aren hasmentan egiten zena dela, segur aski Artatzan ibiltzen zena, apezten joera izan baita, xedetzat kristau erlijioaren zabalkundea harturik jakina, solasa eta izkirionea lekuan lekuko euskarara egokitzea. Ez dakigu, dena den, egileak erabat Artatzako euskara erabili zuen edo Zudairiko bere hizkeratik zerbait sartu zuen. Ez dakigu, ezta ere, bi herrien artean alderik bazenez, normalena baietz pentsatzea izanagatik.

Desberdintasuna, zernahi gisaz, txikia zatekeen, bi herriak bata bestetik bizi-
ro hurbil daudelako.

TESTUAREN TRANSKRIPZIOA

Jesus, Maria y Josef

Lenbicoa Jaincoa amacia eta Honracia

Preg^o. Norc amacedau Jangoycoa

R. Aren mandamentu santuac gordeceitunac

P ~~Norc gordeceitu aren mandamentu santuac~~

P Cerda jangoycoa amacia beste gauza guzciac baino geyo

R Lenago Munduco gauza guzciac galcia zec Gangoycoa ofendiccia

P Certara geyo obligace gaitu mandamentu santuonec?

R ~~Adoratu eta espera~~

R Adorece- Jangoycoa Gouren gorpuz da Arimoqui esperazougula aren-
gan gan fede santuarequi

Bigarna ez Juramentu falsoric eitia

P. Norc eitedau Juramentu falsoa?

R Jangoycoa ecartedauenac testigo falsotaco, ec Eguia, ec Justycia eta ec
necesidaderic бага.

Yrigarna Jayac gordecia eta santificacia

Preg^o. Norc gordeceitu Jayac

R. enteramente Meza enzutedauenac eta necesidadericbaga trabajace ez-
tauenac

Laugarna Jure Aita eta Ama amacia eta amacia

P Norc amaceitu Ayta eta Ama?

R Obedecitu, socorritu eta erreverenciazeitunac Ouren necesidade guzcietan.

P. Ayta eta Amaren nombretan nordira geyo entendictuac?

R.- Gouroc baino gueio diranac edadem, dignidaden eta gobiernon.

Boscarna ez igor ilze deseyacia

P. Certara obligace gaitu mandamentu santuorrec?

R. ez ygor ilze ez izec, ez pensamentuz da ez obraz.

Seigarna Lujuyaco becatuti apartacea

P. Zer aguinzeyzu mandamentu santuorrec?

R. Yzangaytezla garbi eta casto yzez, pensamentuc eta obraz.

Zazpigarna ez igori ecer oscia¹

Preg^o. Zeraguinzeizu mandamentu santuorrec?

R Ezzarogula igori ezer quendu, eta ez iduqui gauzaric progimo laguna-
ren borondatiaren contra.

¹ Ikus sinkopaz mintzatzean dioguna.

Zorzigarna ez igori falso testimoñoric ereitia etta ez guezurric esatia

P. Zer aguinzeizu mandamentu santuorrec?

R. Ezzarogula igori ligeramente Juzcio gaictoric eregui, eta ez esan defec-toric Progimoarenic.

HIZKUNTZA AZTERKETA

Testuaren hizkuntza azterketa mailaka antolatu dugu, egin ohi den eran: lehenik fonetika-fonologia gaiak ukitzen ditugu, gero morfologiari dagoz-kionak (deklinabidea, aditza eta atzizkiak), hirugarrenik joskera eta azken buruan hiztegia, non gure irudiz nabarmentzekoak diren item lexikoak edo aldaerak sartzen baititugu. Azterketa egitean Ameskoa inguruko alderdiak hartu ditugu kontuan batez ere, Estellerrian Deierriko Eraulgo 1564ko testu ttipia, Gesalazko Muzkiko Elizalderen dotrina eta Martinez de Morentintar-ren testuak, Sakanan Burundako materialak eta Araban agertu berri samarra den Juan Perez Lazarragakoaren izkribuak, Landuchioren hiztegia, Betolatza-ren dotrina, nafar hiriburuan luzaz bizitutako Gamiz sabandoar idazlearen olerkiak eta Garzia de Albenizen testua. Horietaz landara, Martin Portal ameskoarraren idazkia eta toponimiak ematen dizkigun argitasunak ere ibili ditugu, alderaketak egiteko denboran, nahiz leku izenak aipatzen direnean irakurlea 1998ko gure artikulura igortzen dugun, gauzak ez errepikatzeagatik.

Fonetika-fonologia

Bokalak

1. Hersketa: *iduiqui*.
2. Diptongo eta hiatoak
 - Artikulua hartzean hitz bukaerako *-o* ez da ixten, ez dago disimila-ziorik: *Lenbicoa*, *Jeincoa*, *Jangoycoa*.
 - Bai, ordea, hitza *-e-z* akitzen denean: *amacia*, *Honracia*, *galcia*, *ofen-diccia*, *eitia*, *gordecia* eta *santificacia*, *deseyacia*, *oicia*, *borondatiaren*, *ereitia*, *esatia*, baina *apartacea*.
 - Ikusten denez *-eu-* diptongoa *-ou-* bihurtu da: *gouren* (< *geuren*), *esperazoula* (< *esperatzeugula* < *esperatzen dugula*²), *ouren* (< *euren*), *gouroc* (< *geurok*). Badaiteke *eu* > *ou* aldakuntza zuzenean ez gertatu izana eta erdian *au-*ren antzeko bat erabili izana, noizbait (*eu* > *au* irekitzerako ikus Camino, 2004: 68). Izan ere, Altsasun *eu* > *au* irekitzea burutu da (*auli* ‘eulia’, *auri* ‘euria’, *autzi* < *eutzi* ‘utzi’...) eta badira, orobat, *au* > *ou*-ren lekukotasun franko: *erountsi* ‘erauntsi’, *oundi* (< *aundi*) ‘handi’, *goubien* ‘gauean’, *gour* ‘gaur’, *gouza* ‘gauza’, *lou* ‘lau’, *goude* ‘gaude’, *zoude* ‘zaude’... (Zuazo, 1994: 310-311). Hortaz, irudi luke Artatzako testuan ageri diren formek bilakaera hau izan dutela: *geuren* > *gauren* > *gouren*, *esperatzen dugula* > *esperatzeugula* > **esperatzaugula* > *esperatzougula*, *euren* > **auren* > *ouren*, *geurok* > *gaurok* > *gourok*.

² Hemen **esperatzen deugula* zegoela ere kontu egin daiteke (cf. Martin Portalen *valio deue* ‘balio dute’, *TAV*, 119. or. eta hurr.).

3. Bokal batze, erortze eta garatzea

Hasperenketa galdu eta ondoan ukipenean gelditutako bokalak batzen dira, berdinak badira: *Lenbicoa*, *lenago*. Eraulgo 1564ko testutxoan *lenbicoa* dago (Satrustegi, 1991: 102); Gamizek ere *lenago*, *bañolen* du (Goikoetxea, 1982: 199, 201) eta Betolatzak orobat: *lenago* (eta *lelengoa*, 52, 57. orr.). JPLrean, berriz, *-ee-* izaten da honelakoetan: *leen* (6. org., 8. or., 19. org.).

Tartean aspiraziorik izan gabe ere joera *-e + e- > -e-* egitea bide zen, *zec* ‘ze ez’, ‘ezen ez’ alderagailuak frogatzen duenez (ikus, dena dela, txistukariez mintzatzean honetaz dioguna, beherago).

4. Asimilazioa: *Yrigarna*.

5. Aferesia: *Ezzarogula*, *ezzarogula* ‘ez diezaiogula’, hauen etorkizko forma, uste dugun bezala, **ez derazogula* bazen bederen.

6. Sinkopa: *Bigarna*, *Yrigarna*, *Laugarna*, *Boscarna*, *Seigarna*, *Yzangaytezla* (cf. Gamizen *naizla galanta*, Goikoetxea, 1982: 201), *Zazpigarna*, *zorzigarna*. Zenbatzaile sinkopatu hauek bat datoz Altsasun berriki arte ibiltzen zirenekin: *biger-na*, *irugerna*, *laugerna*... (ikus Izagirre, 1967 eta Zuazo, 1994: 314); ez ordea, Deierriko Eraul herrian aurkitutako 1564ko testuko *bigarena* eta *laugarerena* (sic) formekin, ez eta izkribu bereko *lenbicoa*-rekin ere (Satrustegi, 1991: 102). Bestalde, testuan *oicia* irudi duena dago, baina *oscia* ere irakur daitekeela uste dugu, gainean duen puntua horretarako oztupoa bada ere. Zernahi dela, <s> mota hori testuan behin baino gehiagotan aurkitzen dugu. Beraz, eta gure irudituan, **ostutzia*-ren moduko batetik ateratako *óstzia* dukegu hemen, ez hapax bat.

7. Metatesia: *Ezzarogula*, *ezzarogula* ‘ez diezaiogula’ (ikus aferesiaz mintzatzean erran duguna).

8. Protesia: *erreverenciazeitunac* mailegu jasoan aurkitzen dugu. Honek erran nahi du idazleak ongi ezagutzen zuela [rr-] → [err-] erregela; alderdi honetatik hurbil dago hego-nafarreraz idatzirikako testuetarik. JPLk, berriz, normalean *r-* du mailegutan.

Kontsonanteak

1. [j]-en bilakaera

Hitz hastean [x] zegoela segurua da, beti <j-> agertzen baita: *Jesus*, *Josef*, *Jeincoa*, *Jangoycoa*, *juramentu*, *justycia*, *jayac*... Inoiz, ez dagokion hitzean ere azaltzen da aipatu grafema: *Jure* ‘gure’. Hitz barrenean ere berdin: *trabajace eztauenac*. Soinu hori emateko beste batzuetan <g> kausitzen dugu: *Gangoycoa*, *dignidaden*, *progimo*...

Dena dela, <g> letra [g-] edo [-ɣ-] irudikatzeko ere erabiltzen da, espero izatekoa zenez: *gorde*, *Jangoycoa*, *gauza*, *guzciac*, *geyo*, *galcia*, *gaitu*, *gouren*, *gorpuz*, *esperazougula*, *arengan*, *Bigarna*, *testigo*, *igor*...

Deseyacia hitzean badirudi hiatoaren kontrako [j] bat garatu dela; ez dakigu *igor* Nafarroan zabaldua ez ote den arrazoi beragatik sortu (**enor > inor > *ihor > igor* edo **enor > inor > ior > igor?*).

2. Bustidura

Baino busti gabeko aldaera dugu: *beste gauza guzciac baino geyo*. Hau bat dator alderdi honetako toponimiaren azterketatik ateratako ondorioekin (Salaberri, 1998: 56. or. eta hurr.).

3. Dardarkariak

Dardarkari bakuna ongi mantentzen da bokal artean: *aren* ‘haren’, *certara*, *adorece-*, *santuarequi*, *falsoric*, *necesidaderic*, *amaren*, *dira*... Salbuespen bakarra dago: *lujuyaco* ‘lujuriako’, ‘lizunkeriazko’; hondarreko hitz hau dela eta, cf. *deseycacia*.

4. Txistukariak

Hemen erdal grafiak, beste anitzetan bezala, ez digu gauzak nola ziren ongi ikusten uzten. [c] soinua irudikatzeke <c> grafema ibiltzen da: *amacia* ‘amatzea, maitatzea’, *honnacia* “honratzia”, ‘ondratzea’, *gordeceitunac* “gordetzeitunak”, ‘gordetzen dituenak’, *obligace gaitu*... Inoiz <cc> ere badarabil egileak: *ofendiccia*; beste batzuetan <z> edo <zz> dago: *gorpuz* “gorputz”³, *esperazougula* “esperatzougula”, *ezzarogula* “etzarogula” (hau ez da segurua, gorago erran gisan).

Bestalde, ez dakigu *enzutedauenac* formaren azpian *entzute-* zegoen ala *enzute-*. Urkizuk *entzun* transkribatzen du JPLren *ençun* (2004: 70), Mitxelena (1955: 48) Betolatzaren dotrinaz ari delarik «Suponemos por lo tanto que había z fricativa detrás de n en *ençunacaz*, *Zençuna*, como parece tambien deducirse de otros testimonios» erraten badu ere. *Erreverenciazeitunac* mailegu berriaren kasuan ere ez dakigu igurzkaria ala afrikatua zegoen. [s] emateko <c> eta <z> darabiltza: *cer*, *certara*, *ez*, *ec*, *izec* ‘hitzez’, *pensamentuz*, *obraz*, [d]yzu, *yzangaitetzla*... Behin edo beste <zc> dago: *guzciac*, *juzcio* ‘juizioa’. Bestalde, badirudi *zec* ‘zez’ irakurri behar dela (< ze + ez), baina ez da erabat segurua (cf. *ezik*).

5. Herskari eta igurzkariak:

Hauen ahoskabetzeaz eta bestez ikus kontsonante multzoei eskainitako puntua. Hitz hasieran ahostuna dugu *becatuti* hitzean. Lazarragak *becatu*, *becataria* ditu, *parcatu*, *parcaçioa*-ren ondoan, Betolatzak *pecatuac*, *parcatu*, *parcaciño*; Garzia de Albenizek *becatu* / *pecatu*, *becatari* / *pecatari* ditu, eta *parcatu* ere bai. Gai honetaz Agud & Mitxelena (1958: 26-27) eta Zuazo (1989: 19, 2003: 86-87) ikus daitezke.

Egungo zenbait hizkeratan bezala, *geyo*, *gueio* ‘gehiago’ hitzean bokal arteko belare igurzkaria galdu, ukipenean gelditutako *-ao* hiatoa bakundu eta *-o* atera da. *Eregui* / *ereitia* pareaz ikus aditzari eskainitako atalñoan dioguna.

6. Kontsonante multzoak:

a) Hitz barruan:

- Beste hizkera batzuetan (Irañetakoan, errate baterako; Erdozia, 2004b) gertatzen denaz bestera, *-rk* multzoa ez da bakuntzen: *Norc*. JPLk ere *norc* du (9. or.).
- Hortz-hobietako txistukari igurzkariak ondoko belare ahostuna ahoskabetzen du: *boscarna* ‘bosgarrena’. Betolatzak *bostgarrena*, *bostgarrena* du (58-59 orr.).

b) Sandhiak:

- Aditizienaren bukaerako *-n* erortzen da, laguntzailearen aitzinean: *amacedau*, *eitedau*, *obligace gaitu*. Gauza bera gertatzen da ezezko perpausetan: *trabajace eztauenac*.

³ Badaiteke hemen, testuinguruagatik, ebakera [s] izatea, ez [c].

- Batzuetan *-n* ez ezik laguntzailearen hastapeneko *d-* ere galtzen da: *gordeceitunac, gordeceitu, esperazougula* (< **esperatzaugula* < *esperatzeugula* < *esperatzen dugula*), *erreverenciazeitunac, aguinzeyzu*. Ez beti, halarik ere: *ecartedauenac*.
- Hizkera anitzetan bezala, txistukari bizkarkariak ondoko horzkari ahostuna ahoskabetzen du: *trabajace eztauenac*. Gertakari hau Lazarragarenean ere maiz kausitzen dugu.
- Bestalde, *gorpuz da arimoqui* sintagmaren lehen osagaiko hondarkia ezabatu da eta gero jatorrizko *ta* ‘eta’ juntagailua *da* bilakatu da, txistukari ondoan; ez dakigu hondarreko soinu hau afrikatua ala igurzkaria zen, alegia, *gorputz* ala *gorpuz* irakurri behar den, grafiak ez baitu puntu hau argitzen laguntzen. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da Nafarroako alderdi zabal xamar batean, Sakana aldean bereziki baina ez bakarrik hor, txistukari ondoan leku genitiboko *-ko* hondarkia *-go* bihurtu dela. Hau bera gertatzen zen *-ko* hipokoristikoarekin: *Joanesgo* < *Joanes* + *-ko*.
Gauza bera, edo antzekoa hobeki erran, kausitzen dugu *ez izec, ez pensamentuz da ez obraz* segidan.

Morfologia

Deklinabidea

1) Absolutiboa

Galde hitza: *Cer, Zer* eta *nor* (aditza pluralean du honek: *nordira?*).

-a (artikulua): *Lenbicioa, Jeincoa, amacia, Honracia, Jangoycoa...*

Plurala

-ak (artikulua + pluralgilea): *santuac, gordeceitunac, guzciac, jayac, entendictuac, diranac*.

Izenordain, izenondoak eta beste: *Gourok* ‘geurok’, *ezer ez*.

Mugagabea:

Ø: *garbi, casto*.

2) Partitiboa

-ik (kontsonante ondoan), *-rik* (bokal ondoan): *falsoric, necesidaderic, gauzaric, testimoñoric, guezurric, gaictoric, defectoric, Progimoarenic*.

3) Ergatiboa

Galde hitza: *Norc*.

Singularra:

-ak. gordeceitunac, ecartedauenac, enzutedauenac, trabajace eztauenac, erreverenciazeitunac.

Izenordain eta izenondoak: *onec, orrec*.

4) Datiboa

Izenordaina: *igori* ‘inori’.

5) Genitiboa

Singularra:

-aren: Ayta eta Amaren, lagunaren, borondatiaren.

Izenordain eta izenondoak: *Aren* ‘haren’, *Gouren* ‘geure’, *Ouren* ‘euren’, ‘haien’.

Portalek *-aren* darabil singularrean (*Jangoycoaren*) eta *-aen*, irudiz, plurallean (*Virginaen choruan*; cf. *Aen* ‘haien’, TAV, 121); Gamizek ondoko hauek darabiltza: *beguien aurean* ‘beguien aurean’, *serorean aldetik* ‘seroreen aldetik’, *oliboan azpian* ‘olibondoen azpian’ (?), *chiquiain serbitzalea* ‘txikiaren / txikien zerbitzaria’ (?; cf. Altsasu), *bien* ‘bien’ (Goikoetxea, 1982). Altsasun *-an* zen singularra eta *-ein* plurala (Zuazo, 1994: 326). JPLk *-aren*, *-aen* du singularrean: *fortunearen* (8. or.), *ama Eneaeen* ‘ama enearen’ (7. or.), *canpuaen* ‘kanpoaren’ (15. or.), *Jaun cerucoaen* (21. or.), *-en* pluralean, *-oen* “plural hurbilean”: *andraen* ‘andreen’ (23. or.), *guztioen* (31. org.), *-ren*, *-en* mugagabeen bokal ondoan: *silueroren* ‘Silueroren’ (2. or.), *siluroen* (5. org., 7. or.), *sirenaen aldean* ‘Sirenaren aldean’, *sirenaen aurean* (12. or.), *doridoen beruac* ‘Doridoren berbak’ (13. or.), *silueroren beruac* (14. or.). Izenordainetan *aen* ‘haren’ (5. org., 10. org., 11. org., 24. org.), *aen* ‘haien’ (13. org., 14. org., 23. or., 25. org.), *euren* ‘euren, beren’ (7. or., 13. org., 25. org.), *geure* (15. or.) ditu Lazarragak.

6) Soziatiboa

Singularra: *-ki* (bokal ondoan), *-areki* (bokal ondoan): *gorpuz da Arimoku⁴*, *fede santuarequi*. Ikusten denez, lehen sintagman aurreneko osagaiko hondarkia ezabatu da, alegia, *gorputzareki (e)ta arimoki* → *gorpuz da arimoki* bilakatu da. Portalek *-requin* du mugagabeen eta *-arequin* singularrean; Elizaldek *-arequi* darabil singularrean, *-equi* pluralean. Muzkiko testuetan ere *-arequi* izan ohi dugu singularrean eta inoiz *-erequi*, goiko bokalen ondoan; pluralean *-equi* dago.

JPLek *-gaz* (mugagabeen), *-agaz* (singularra), *-acaz* (plurala), *-ocaz* (plural “hurbila”) darabiltza⁵, baina *-requin* (izenordainekin), *-aquin* (plurala), *quin* (mugagabea) ere badu: *çugaz* (4. or., 19. org.), *çuregaz* (19. org.), *Enegaz* (5. org.), *neuregaz* (27. or.), *beregaz* (7. org., singularra), *nigaç* ‘nirekin’ (11. org.), *siluerogaz* ‘Silverorekin’ (7. or.), *doridogaz* ‘Doridorekin’ (14. or.), *ni ylagaz* ‘ni hilarekin’ (7. org.), *loric goçoenagaz* ‘lorik gozoenarekin’, *atençio andiagaz* ‘atentzio handiarekin’ (13. or.), *bandereagaz* (15. or.), *ysasoagaz* ‘itsasoarekin’ (23. org.), *berbaocaç* ‘hitzokin’, *çeuze beguiocaz* ‘zeure begiokin’ (12. org.), *corroçacaz* ‘zorrotzekin’ (13. or.), *catea andiacaz* ‘kate handiekin’ (13. org.) / *berequin* (4. org., 27. or., singularra), *çurequin* (5. org., 17. org.), *arçai guztiaquin* ‘artzain guztiekin’ (10. org.), *norbere ardiaquin* ‘nor bere ardiekin’ (12. or.), *Esecoaquin* ‘etxeokekin’ (37. or.), *banaquin* ‘banarekin’ (12. or.), *amorequin* ‘amorekin’ (14. or.).

Betolatzak *-gaz*, *-az* besterik ez du; ikus Mitxelenak autore honek egiten duen erabileraz dioena (1955: 47). Gamizek *orrequin*, *onequin*, *iltzeaquin*, *tonuarequin*, *zurequi*, *osasunaquin* darabiltza, baina *bategaz*, *alcarregaz* ere bai. Garzia de Albenizek ere antzera jokutzen du: *-aquin* du singularrean eta pluralean, eta hauen aldamenen *ceñegaz* ‘zeinekin’ eta *onegaz* ‘honekin’; Araba-

⁴ Hau plurala ere izan liteke, alegia, ‘gorputz eta arimekin’ adiera izan lezake, edo ‘gorputz eta arimokin’.

⁵ Inoiz *-az* ere badu, instrumentala edo *-(a)gaz*-en aldaera laburtua: *çeruco Jaunaz* ‘zeruko Jaunarekin’ (9. org.), *erroytu andiaz* ‘zarata handiaz, handiarekin’, *tristeza andiaz* ‘tristura handiarekin’ (13. or.). Bi kasuak nahasten zituelako seinale 22. orrialde ginberreko *donçellachoa orain çaoz / soberuiaçaz beteric* izan daiteke. Gamizek ere, kasu batean, instrumentala edo *-(a)gaz*-en forma laburtua darabil forma osoaren ordez: *Almorzu ona erango degu / tortillaonbat urdaiaz / probechu andi eguingoduzco / campu zabaltazunaz* (Goikoetxea, 1982: 201).

ko erabilerarako ikus Zuazo (1989: 26 eta 2003: 88). Burundan, gaineo aldean, *-kin* da ohikoena Altsasun, baina behin behintzat *-eki* ere ageri da (ikus Izagirre, 1967 eta Zuazo, 1994, 327, 328); sudurkaririk gabeko aldaerak Nafarroan duen banaketarako ikus Camino (2004: 78).

7) Instrumentala

Mugagabea:

-z (bokal ondoan), *-ez* (kontsonante ondoan): *izec* ‘hitzez’, *pensamentuz*, *pensamentuc* ‘pentsamenduz’, *obraz*. Lazarragak, Betolatzak eta Garzia de Albenizek ere *-z* dute, ez Nafarroako zenbait alderditan biziro hedaturik dagoen (Irañetan, erraterako, Erdozia, 2004b) eta egon den *-s* (Muzkiko Elizaldek beti *-s* du; herri bereko testuetan, aldiz, *-s* eta *-z* daude). Izagirrek Altsasun bildu zituen materialetan, berriz, *-z* dago.

8) Inesiboa

Plurala:

-etan: *guzcietan*.

Mugagabea:

-n: *edadem*, *dignidaden eta goviernon*.

-tan: *nombretan*

Hemen irudi luke gaztelaniako jatorrizko testuaren eragina izan dela, alegia, ereduak bideratu duela itzulpena, emandako soluzioa kasu batean eta bestean desberdina izan bada ere, erdaraz, *ezaguna denez*, *en edad*, *dignidad y gobierno* erraten baita eta, era berean, *en nombre de*.

Izenordain eta izenondoak: *arengan*.

9) Adlatiboa

Galde hitza: *Certara*. Honen erantzuna kasu batean ez dago zeharo garbi, baina irudi du *Adoraceco* zegoela; bigarren adibidean, berriz, aditizena soil-soilik ageri da: *Certara obligace gaitu / ez ygor ilze*.

10) Ablatiboa

Singularra:

-ti: *becatuti*. Martin Portalek (*TAV*, 121) *-rica* du *pobreçarica irtenica* bertsoan; Muzkiko Elizaldek *-tic* du normalean (*copetatic*, 24. or., *iguzquitic*, *arguitic* 34. or.,...), eta behin *-ti* (*bateti berceraño*, 24. or.); herri bereko testuetan *-tic* (*egunetic*, 373. or., *aurretic*, *Hospitaletic*, 382. or., *ylletic illera*, 384. or., *escutic*, 387. or.) eta *-ti* (*urteti urtera*, 384. or., *illeti illera eta urte bateti vercera*, 385. or., *arimeti*, 388. or.,...) daude, Gamizen olerkietan (*aspiti*, *aldecitic*, *aldapatic*) eta Garzia de Albenizen testuan (*gustitic*, *guztiti*, *ezeti*, *gorputcetic*) bezala. Betolatzak *-ti* darabil (*ganeti* ‘gainetik’, 56. or.), baina honekin batean *-rik* ere badakar: *vioz gustiric* ‘de todo corazón’ (52. or.), *gach gustiric* ‘de todo mal’ (53. or.); behin, gainera, *-rean* du: *hilaren arterean* ‘de entre los muertos’ (54. or.). JPLk *-ti*, *-rean* eta *-reanik* (hondarrekoa bakanka) ditu singularrean: *biozeti* (9. org.), *florestati* (13. or.), *arteti* (14. org.), *basoti*, *aldeciti* (19. org.) / *lecurean* (1, 3, 6. orr.), *bere camararean* (6. org.), *bere maucarean* (9. or.), *bere errirean* (9. org.), *aorean* ‘ahotik’ (12. org.) / *lecureanic* (8. or.g) *arereanic* (42. org.), *-tica* mugagabea *Gaztela* leku izenarekin: *Gaztela-*

⁶ Iñaki Caminok (2004: 62-64) hego-nafarrera aztertzeko kontuan hartu ez dituen ezaugarrien artean dago ablatiboko *-ti* atzizkia, “ezaugarri zahar hau hainbat eta hainbat lekutan gordetzen” delako.

tica (26. or.). Altsasun *-ti* dago orain (*bateti, besteti, bideti, ipurditi, liburuti, ondo-ondoti, zaineti...*, Izagirre, 1967: 63, 65, 78, Zuazo, 1994: 327). Gai honetaz ikus Lakarra (1982: 17-18).

11) Leku genitiboa:

Singularra:

-ko (bokal ondoan): *Munduco*.

12) Prolatiboa

Hemen hego-nafarreran aski hedaturik dagoen *-taco* dugu (*testigo falsotaco ecartedauenac*), ez Martin Portalek (*Libreaçat artu deçu, Capitançat daroela, Exempluçat arturica, TAV*, 119, 121) eta Lazarragak darabilten *-çat*. Ez dakigu Gesalätzen zer ibiltzen zen, dakigunez ez baita horrelakorik ez Elizalde-ren lanean ez eta Martinez de Morentindarren testuetan ere.

Aditza

1. Aditzizenak

Ekarri-ren aditzizena *ekarte(n)* da, *ecartedauenac*-en ikusten denez. Ezau-garri hau, jakina den bezala, Euskal Herriko bi muturretan da ohikoa, eta, beraz, zaharra. Beriainek 1626ko dotrinan *ezçaiçaçula utci tentacioan erortera* du, eta Iruñean 1609an saritutako Joan Elizaldekoaren olerkian *eçarten da may ontan* 'ezartzen da mahai honetan' dago (*TAV*, 116. or.); JPLk (14. org., 16. org., 33. or.), bide beretik, *Etorten* 'etortzen', *etortearen* 'etortzearen', *jarrten çara* darabiltza, Garzia de Albenizek *etorten* (ikus Altuna, 1998: 120). Elizalde, aldiz, *ecarcea* dio (1735: 52).

Beste inguramenduetan, ordea, *-tze(n)* da: *amacedau, gordeceitunac, gordeceitu, Adorece-, esperazougula, enzutedauenac, trabajace eztauenac, aguinzeizu...*, ez bada sudurkariz bukatutako *egin* aditzean: *eitedau* 'egiten du'. Portalek *ocupacen deu* (199. or.) darabil eta Gamizek ondoko forma hauek: *eguiten, mintzacenbadut, edatzen duzu* 'hegan egiten duzu', *ezta ataritzen, acabatzen dira* (Goikoetxea, 1982). Landuchiok *-itan, -etan, -ketan* eta *-zaiten* ditu, aditza partizipioan nola bukatzen den (Zuazo, 2003: 92), eta Garzia de Albenizek *-iten, -etan, -ketan, -ten* eta *-tzen* (Altuna, 1998: 120).

Betolatzak, bestalde, honelakoetan *-etan* du: *pertenecietan jacaz, pertencietan jacazanac, gueretaçala* 'geratzen zela' (54. or.), *etorricodala juzguetan* 'etorriko dela juzgatzerá', *encerretan dira* 'se encierran', *ametan* 'maitatzean' (56. or.), *esperetanbadau* 'espero badu', *aguiduetan davenean* 'agintzen duenean' (57. or.)... JPLk *suplicaetan nachaçu* (3. or., 9. org.), *prometietan deusut* (11. or.), *pregonaetan eben* (13. org.), *declaraetan euela* (14. org.), *abisaetan çaitudan guero* (24. org.), *partieta danean* 'abiatzen denean' (28. or.), *causae-tandau* (30. or.) ditu, baina *arçaiten eben* 'hartzen zuen' (4. or.), *seruidu yçaten liçala* (5. org.), *jaite ebela* 'jotzen zuela' (6. or.), *ysaiten eben beguiac* 'ixten zituene begiak' (8. or.), *jaiten ebela* 'jotzen zuela' (9. or.), *galçaen çaitue(z)* 'galitzen zaituzte' (?) (17. org.), *yfinten dogu* (24. org.). Aditzoina ozenez bukatua duten aditzetan *-te(n)* du: *emaite eben* (7. or.), *eçarrten ebela* 'botatzen zuela' (12. org.), *eçarten euela* 'botatzen zutela' (13. or.), *eguite ezeuela* 'egiten ez zutela' (13. or.), *Eguiten daue* (15. org.), *ilte nabem* 'hiltzen nauen' (16. org.), *Ebiltedira* (25. or.), *ylteninçanda* 'hiltzen nintzen eta' (27. org.).

Aditza izendua dagoenean beti *-cia* (ia beti), *-cea* (behin) dugu Artatzako testuan, hots, eta hagitz oker ez bagaude, egun *-tzia, -tzea* idatziko genu-

keena: *amacia*, *Honracia*, *ofendiccia*, *gordecia*, *santificacia*, *deseyacia*, *apartaceea*, *oscia*. Salbuespena, espero izatekoa zenez, *-n-ez* bukatzen den *ein* ‘egin’ aditza da: *eitia*. Ageri ere den *ereitia* kasu berezi samarra da, partizipioa *eregui* baita; honen bi azalbide dakuskigu: a) Bilakaera *eregitea* > *eregitia* > *ereitia* izan dela kontu egitea, edo b) Hego-nafarreran arrunt zabaldurik dagoen *eraiki* aditzak ‘erein’ (eta ‘altxatu’, testuingururen batean segurik⁷) adiera duenez (ikus Ondarra, 1982: 160), bai *eraiki* eta bai *eregi* ez oso aspaldian aitzineko *erein* + *-ki*, *-gi*-tik atera direla pentsatzea, eta *-te* hartzean *-ki*, *-gi* “berria” ez zela gehitzen (cf. Goizuetako *ebaki* / *ebattera*, *ebattetik*..., edo JPLren *edegui* ‘edeki’ eta *edetera* ‘edekitzera’). Horrela izatera *ereitia*-ko *-tia* hori aitzineko sudurkariak beharturik agertuko litzateke gure testuan.

Betolatzarenean berriz ia beti *-tea* dago: *sinistetea* (55. or.), *amatea*, *eytea*, *gordetea*, *honretea* (56. or.), *Conffesetea* (57. or.), *parquetea*, *consoletea*, *errescatetea*, *jancitea*, *enterretea*... (58. or.), baina *jayazea* ‘jaiotzean’ (55. or.). Cf. gainera, *redimietarren* (52. or.), *salvaetarren* ‘salbatzarren’ (55. or.).

2. Indikatiboa

*edun: *dau* ‘du’, (*d*)*itu*, *gaitu*, (*d*)*ugu*, (*d*)*izu* ‘dizu’. Portalek *deu* ‘du’ eta *ditu* darabiltza.

izan: *dira*.

3. Subjuntiboa

*erazan: *Ezzarogula*, *ezzarogula* ‘ez diezaiogula’. *Erazan aditzaren subjuntiboko forma irudi du; cf. Juan de Beriainen *emandrazquiogun* ‘eman diezazkiogun’ (*Tratado*, 10) (< **eman derazkiogun*). Singularreko forma *drazogun* zen (< **derazogun*): *ygordraçogun* ‘bidal diezaiogun’ (*Tratado*, 18; cf. *igor draçoten* ‘bidal diezaioten’, *ibid.*, 18, *emandrazoten* ‘eman diezaioten’, *ibid.*, 39, *emandrazadan* ‘eman diezadan’, *ibid.*, 40, *eguin drazagun* ‘egin diezagun’, *Dotrina*; hitz barreneko *-j*-ren faltarako cf. Muzkiko Fco. Elizalderen *escadegungatic* ‘eska diezaiogun’). Joan Elizaldekoaren 1609ko olerkian *Eta eros dracogun gatic* / *Pregonatçen du onlatan* agerida (*TAV*, 116. or.), baina ez dakigu seguru *dracogun gatic* horretan *draçogun gatic* dagoen, hots, *drazogungatik* ulertu behar den ala *drakogungatik*, gure ustez egokiena biotan lehena bada ere (gero *Assarra ezquindeçen gatic* dago). G. Aldaik (1999: 272) *erazan ematen du XVI-XVII. mendeetako hegoaldeko goinafarrera zaharraren ezaugarri nabarmenentzat, dioenez beste euskalkietan aditz hori sekulan agertzen ez delako. Autore honen arabera hegoaldeko goinafarrera klasikoak, XVIII. mendekoak, ez zuen orduko *erazan erabiltzen, “fenomeno fonetikoek eraginik”. Testu honetan ikusten denez, ordea, hego-nafarreran ez, baina Ameskoabarrereko hizkeran artean bizirik zegoen XVIII. mendearen bukaeran edo hemeretzigarrenaren hasmentan. Hego-nafarreran izan duen hedadura ezagutzeko ikus Camino (2003: 75).

Artatzako adizkiaren bilakaera hau izan dateke: **derazogun* > **dezarogun* (metatesiz) > *etzarogula* (aferesiz segur aski, edo sinkopaz beharbada, **eztezarogula*-tik abiatuta).

izan: *gaitez(en)*

⁷ Cf. Betolatzaren “Zorzigarrena falso testimonioric eregui ez eytea” (Mitxelena, 1955: 56) edo Beriainen 1626ko *Dotrina*-ko “Zorcigarrena, yori falso testimonioric erayqui eztrazogula”.

4. Beste gai bat aditzaz mintzatzerakoan aipatu behar dena haren eta osagarri zuzenaren artekoa da; izan ere, komunztadurarik ez egitea, Laka-rrak dioenez (1992: 26-27), bizkaieraren alderdi batean zen eta da ezaguna, eta orobat hego-mendebaldeko gizpukeran eta arabera deitu izan denaren eremu batean (Landuchio, Gamiz), hots, egun mendebaldeko eus-kara deitzen dugunean eta erdialdekoaren puska batean (ikus Zuazo, 1989: 30, 2003: 89-90). Betolatzak komunztadura egiten du eta Martin Portalek ere bai; Lazarragak eta Garzia de Albenizek batzuetan badute eta beste batzuetan ez.

Atzizkiak

1. *-gi* eta *-ki* (aditz atzizkia): *ereitia*, *eregui* ‘eraiki’, *yduqui*. Zudairiko idazleak bi aditz atzizkiak erabiltzen ditu, *-gi* eta *-ki*; lehena mendebaldera eta Burunda aldera begira dago eta bigarrena berriz hego-nafarrera egiten zen alderdira, honetan tartean salbuespenen bat badago ere (*edegui*, *idegui* ‘ireki’ dago Gesalazko testuetan, *iduqui*-ren aldamenean; Lekuona, 1973: 379, 383, 385). JPLk beti *-gi* du: *edugui* edo *eugui* ‘eduki’, *jagui* ‘jaiki’, *ydogui* ‘idoki, atera’, *yregui* ‘ireki’ (baina *belarrioc yrecaçu*, 31. or.); *DLC*-n ere *-gi* dago, salbu *euqui*, *euchi*, *euchy*-ren kasuan (Zuazo, 1989: 31). Gai honetaz ikus Camino (2004: 89-90).

2. *-mentu*: *juramentu*, *mandamentu*, *pensamentu*.

3. *-tu*: Artatzako testuan erdaratikako *obedecitu* eta *socorritu* maileguetan *-itu* agertzea garrantzi handikoa da Ameskoako hizkera kokatzeko garaian, Arabako testuetan, mendebaldeko gainerako hizkeren ildotik, *-ado* → *-adu*, *-ido* → *-idu* aurkitu ohi baitugu (Zuazo, 2003: 92).

Joskera

1. Adierazpen perpaus osagarriak

Hemen *-la* dugu, kasu batean sinkopaz: *P. Zer aguinzeyzu mandamentu santuorrec? / R. Yzangaytezla garbi eta casto (...); Preg^o. Zeraguinzeizu mandamentu santuorrec? / R. Ezzarogula igori ezer quendu.*

2. Alderaketa

Alderaketa arrunta dago lehenik galderan: *Cerda jangoycoa amacia beste gauza guzciac baino geyo*, eta ekialdeko hizkeretan bizirik dagoen *-ago ezik (ez)* itzuliaren parekoa (ikus Salaberri, 2000: 250) erantzunean: *Lenago Munduco gauza guzciac galcia zec Gangoycoa ofendiccia*, alegia, eta egungo grafia-rekin emanik: *lenago munduko gauza guziak galtzia zez (ze ez) Jangoikoa ofenditzia*. Ikus, zernahi dela, txistukariez mintzatzean alderagailuaz erran duguna.

3. Erlatibakuntza

Ohiko erlatiboak opatzen ditugu testuan, aditza beti perpausaren bukaeran kokaturik ez badago ere: *Aren mandamentu santuac gordeceitunac; Jangoycoa ecartedauenac testigo falsotaco; enteramente Meza enzutedauenac eta nedesidadericbaga trabajace eztauenac; obedecitu, socorritu eta erreverenciazeitunac Ouren necesidade guzcietan; gouroc baino gueio diranac edadem, dignidaden eta gobiernon.*

4. Xedezkoak

Testuan, *certara* galdekariaren ihardespentzat *Adorece-* ageri da, baina ez da erabat garbia, bukaerako bi letrak gainmarratu baitzizkion egileak; irudi du, nolana ere, *Adoretu* zegoela hastean. Bosgarren aginduan berriz azaltzen da itzuli hau: *certara* da galdera oraingoan ere, eta *ez ygor ilze* ‘ez inor hiltzera’ erantzun garbia, hots, adlatiboaren hondarkia ez daraman aditzizena. Ezaguna da mendebaldeko hizkerek inesiboa ibiltzen dutela aditzizenean ekialderagokoen adlatiboan ordeztu, salbuespenak ere izanagatik (cf. Garzia de Albenizen *entregaitera nua bada... neure arima au*; ikus Altuna, 1998: 121), baina ez dakigu Artatzako testuan agertzen diren “arrarokeria” horiek gai honekin zerikusirik ba ote duten.

Hiztegia

arimo. Aski argiro idatzirik dago, eta ez dago dudarik *-o* duela. Ildo beretik, erran daiteke adiera franko garbi dagoela, *Gouren gorpuz da Arimoqui* ‘geure gorputz eta arimarekin’ edo ‘geure gorputz eta arimekin’ sintagman ageri baita. Elkanoko Lizarragak *arimo* ‘animo’ zentzuarekin ibiltzen du eta *arima* ‘arima’ adieraz: *Bercebát dá Martyr Christioén martyrio ta triúmfo gloriosoen admiragárria, suffritus súac, ezpátac, tormentu-género aimbérce ain icaragárriac paciéncia ta arimo onaréqui* (JMESB, 33) baina *Orai dúten beldúrria dá, cembáit arima gaichstoc itzuldezáten venéno doctr(in)agau* (UIGPL, 62). Muzkiko Elizalde *arima* du (48. or.) eta herri horretako testuetan *anima*, *anime* da ohikoa, baina pare bat aldiz gutxienez *arime* agertzen da. Gamizek ere *arime* darabil (Goikoetxea, 1982: 201) eta Garzia de Albenizek *arima* (Altuna, 1998: 520). Sintagma ulertzeko beste era bat plural hurbil batean pentsatzea da, hots, hemen ‘gorputz eta arimokin’ dugula kontu egitea. Honela izatera, *arima* ezarri behar genuke sarrera honen izenburutako.

baga. Partitiboarekin erabiltzen zen: *necesidaderic бага* (bi aldiz). Martin Portalek *eguin gabe* du (119. or.); JPLk *bage* eta *baga* darabiltza, partitiborik gabe: *seme бага* (7. or.), *aseguin bague* (8. org.), Betolatzak *necessidade бага* (56. or.), *ceinzuc bagaric* ditu eta Garzia de Albenizek *movimentu bagaric* (Altuna, 1998: 522); Gamizek *lotzaric bague*, *carcelbaga*, *prisione бага*, *odeybaga*, *miñbaga* dakartza (Goikoetxea, 1984: 199, 201). Beriainek *bague* ibili ohi du (behin behintzat *esquergabe* du 1626ko dotrinan), Elizalde *bague*, *vague*, baina aldi batean *vide gavean* du (*berceren ondasunac vide gavean ez deseacea*, 8. or.); Muzkiko testuetan *bague* da normalena eta gutxi batzuetan *gabe* ere agertzen da. Garesen *bage* zegoen (Ondarra, 1982: 165. Elkanorako ere *bage* dakar Bonapartek, baina Lizarragak *gabe* ibiltzen du); Oltzan eta Goñin, berriz, *gabe* zegoen, Amenduxen olerkian eta Iruñean saritutako Pedro Ezkurrakoaren 1609ko olerkian bezala. Sakanan *bage*, *bee*, *bai* ibiltzen da egun (Zuazo, 1994: 318, Erdozia, 2004: 58).

Artatzako testuko *baga*, ez bairik gabe, *-a* berezkoa zuten hitzek *-a* artikulua hartzean gertatzen zatekeen *-a + -a > -ea* disimilazioari zor zaio; cf. Altsasuko *bi golda* ‘bi goldé’, *titeri* ‘titarea’ / *bi titera*, *udaberriko lorak*, *txabolí* ‘etxola’ / *bi txabola* (Izagirre, 1967: 66, 81, 82). Portalek *aytea*, *propheteac*, *pobreçea* darabiltza eta Gamizek *errespuestea*; ikus Zuazo (1989: 24-26). Toponimiak eskuetaraten dizkigun lekukotasunetarako cf. Salaberri (1998: 52-53).

entendictuac. Testuingurua berezi samarra da, baina ez da ageri hemen hego-nafarreran hain hedaturik dagoen *entendatu* aldaera (Elkano, Gares, Oltza eta Goñi..., Ondarra, 1982: 158, Elizalde, Lizarraga...). JPLk *adietaco* ‘ulertzeko’ du eta honekin batean *ez dot entendimenturic* (20. or.).

eregui ‘eraiki’, *ereitia* ‘eraikitzea’. Betolatzak ere *eregui* du (56. or.).

ezer ez. Hemen nabarmentzekoa da gure testuan Nafarroan hain zabalduarik dagoen *deus ez ez* agertzea. Erraterako, ondoko lanetan *deus ez* baizik ez dago: Beriainen eta Elizalderen dotrinetan, Muzkiko testuetan (*daus ez*), Elkanoko Lizarragaren izkribuetan⁸, Ukargo dotrinan eta Makirriaingo kate-ximan (*daus ez*). Bonapartek bildutako materialetan ere *daus*, *deus* baizik ez dago, dakigunez (Ondarra, 1982: 170). Izagirrek *ezeréz* bildu zuen Altsasun (*surik ein éz tezeréz*, 1967: 55); Erdoziaren arabera (2004: 113) *daus(ee)* Uhartete Arakilen hasten da, sartaldetik sortaldera goazela.

guczi ‘guzia, guztia’. Portalek *guztia* du (*TAV*, 120), Gamizek *guciac* (hiritan), *gustiac* (bitan), *guztiz* (bitan) (Goikoetxea, 1982)⁹ eta Betolatzak *gustia*, *gustiez* (52, 56. or.); Garzia de Albenizek *guztia* darabil gehienetan eta *gustia* behin (Altuna, 1998). JPLk *guzti* du ia beti, salbuespena beste izkirione batez idatzitako orrialde bazterreko *gucioc* (20. or.) da. Iruñean saritutako 1609ko olerkietan *guztiac* dugu bi aldiz Pedro Ezkurrakoarenean, *gucien*, *guztian* Migel Aldazkoarenean eta *gustiei*, *gustiari* Joan Elizaldekoarenean. Beriainek *guci* ibiltzen du gutiz gehienetan, baina behin behintzat *gusti* du, *Dotrina*-n (*gustien gañean*); Elizaldek eta Martinez de Morentindarrek *guci* darabilte. Altsasun Izagirrek *guzi* jaso zuen gehienetan (1967), baina *guzti* ere bildu zuen, bizpahiru aldiz (Zuazo, 1994: 324); Erdoziak (2004: 140) *guze* dakar Sakana erdialderako, baina *guzti* Urdiainerako.

Zudairikoaren tarteko *-cz-* hori kontu grafiko hutsa da edo **gutzi*-ren tankerako zerbait ikusi behar da? (cf. *ezzarogula* dela-eta gorago erran duguna). Zentzuzkoena, kasu honetan, *guzi* irakurtzea iruditzen zaigu; bide bereetik zortzigarren mandamentuko *Juzcio* “juizio” irakurri beharko da, edo, guxtienez, “juizio”.

gueyo. Portalek *gueyago* du (*TAV*, 120) eta Elizaldek ere bai (1735: 64); Muzkiko testuetan *gueiago* da normalena, baina behin *gueiao* ere bada. JPLk *gueixeago* (24. og.), *gueiago* (26. or., 31. org.) darabiltza eta Garzia de Albenizek beti *gueiago* du. Altsasun, berriz, Artatzako formatik ez biziki urrun dagoen *geiyoo*, *gaiyoo* ibiltzen zen (Izagirre, 1967: 65, 50); Urdiainerako Erdoziak (2004: 132) *gaiyo* dakar.

guezur. Betolatzak *guzur* du (56. or.) eta *DLC*-k *guçurra* (154. or.); Sakanan *gezur* dago (Erdozia, 2004: 132).

idduqui ‘eduki’. Beriainek *yduqui* (*Tratado*, 46, 55, 69, 88), *idduquitu*, *yduquitu* (ibid., 9, 11, 77) ibiltzen ditu eta Elizaldek *idduqui* (3, 21, 57...), Martinez de Morentindarrek bezala. Elkanon eta Garesen, Bonapartek bildutako materialetan ageri denez, *iruki* zegoen, eta Oltza-Goñerrietan *iduki* (Ondarra, 1982: 156). JPLk, berriz, mendebaldeko *eugui*, *edugui* darabil (5. or., 19.

⁸ Honen kasuan inoiz ez duela ibiltzen erratea soberaxko da, baina izatekotz ere, inoiz edo behin izanen da, ez era sistematikoan.

⁹ Honen lanean *-s-* / *-z-* dantza ikusten da, horzkari aurrean: *eztuzu*, *eztut*, *esta*, *uzteduei* ‘uste dute’, *estiac* ‘eztiak’, *gustiac*, *izten dut* ‘ixten dut’, *bigundu zaiste* ‘bigun zaitezte’, *pistu naizu* ‘pitz nazazu’, *laztana*, *nazturic* ‘nahasirik’...

org., 24. org., 27. org.); Sakanan *edugi*-tik atera bide diren *urai* (Altsasu, Etxarri; Izagirrek lehen herrian *ureitzen genduzen* ‘edukitzen genituen’ dakar, 1967: 63), *urii* (Lakuntza), *irui* (Arbizu), *uittu* (Dorrrao), *idui* (Unanu), *idugi* (Uhartte Arakil), *idiittu* (Irañeta) ditugu; *iruki* Urritzolan ageri da, alderdi honetan (Erdozia, 2004: 291). Gamizek XVIII. mendean *euqui* darabil (Goikoetxea, 1982: 199, 201); cf., gainera, Portalek dakarren *yrequi* ‘ireki’ (*TAV*, 120).

igor ez, ygor ez. Beriainek (1621, 1626) *yor* du eta Muzkiko Elizalde (1735) *ior, yor*, baina herri horretako testuetan *inior* eta *iñor* dago. Bonapartek bildutako materialen arabera (Ondarra, 1982: 170) *nigor* zegoen Elkanon (Lizarragak *niór* du), *iñor* Oltzan eta *igor* Garesen eta Goñin. Bestalde, eta mendebaldera joanez, JPLk *ynor* (*bere*) du eta Betolatzak *iñor, iñoen* ‘inoren’ (56. or.). Altsasun *iyoi* ‘inori’ bildu zen Izagirrek (1967: 49) eta Erdoziak (2004: 156) *iyuere* jaso du Urdiainen.

Jeinco, Jangoyco. B. Etxeparekoak ere (1980 [1545]: 8, 10. orr.) bi aldaerok darabilta: *geyncoari, Jangoycoac* (erg.), *Jangoycua* (10. or.). Portalek *Jangoycoaren* du (*TAV*, 121), JPLk *Jaicoari* (11. org.), *Jaicoac* (erg., 13. org., 14. org.), Betolatzak *Iaũgoicoa, Iaũ goicoa, Iaun goycoa* (52, 56. orr.), Gamizek *Jaincoac* (erg.) (Goikoetxea, 1982: 202) eta Garzia de Albenizek *Jaungoico* (Al tuna, 1998: 521). Elizalde normalean *Jangoico, Jangoyco* du, baina pare bat aldiz *Jaungoyco* ere badakar (77, 80. orr.); Muzkiko testuetan *Jangoicoa, Jangoycoa* besterik ez dago.

oscia. Testuinguruak garbi adierazten du ‘ostu’, ‘lapurtu’, ‘ebatsi’ dela aditz honen erranahia eta honek irakurketa hau –eta ez *oicia*– hobestera garamatza. Betolatzak (Mitxelena, 1955: 56) *Zapigarrena ecer ostu ez eytea* du; Elizalde (1735: 8) *Zazpigarrena, ec ebastea* dio.

progimo lagun ‘lagun hurkoa’. Beriainek eta Elizalde *proximo laguna* darabilte, JPLk (49. or.) *proximoa*.

quendu. Elizalde *quendu* darabil eta Muzkiko testuetan *equendu* dago. JPLk *quendu* (13. org.), *quençaiteco* ‘kentzeko’ du (22. org.), eta hauekin batean adiera bereko *edegui, edetera* (13. or., 13. org., 39. org.). Egun Burundan *kendu* ibiltzen da (Erdozia, 2004: 261).

santu ‘santua’. Gaztelaniaz femeninoa den *fede santuarequi* sintagman darabil. Hego-nafarreran, jakina denez, *sandu* da zabalduena (cf. Iruñeko *Sanduzelai* toponimoa). Lazarragak *santu* eta *santa* ditu, eta orobat Betolatzak (*Cruze Santeagaz*, 52. or.); Martin Portalek eta Garzia de Albenizek ere *santua* darabilte.

ONDORIOAK

Ikusi dugu testu honetako hizkerak mendebalderagoko euskarara hurrantzen duten ezaugarri batzuk badituela: *-gi* aditzatzizkia (*eregui*; ikus Camino, 2003: 89-90), *dau* ‘du’, *diranac* ‘direnak’, *baga* ‘gabe’¹⁰, *entendictuac*, *ezer ez, ostu, santu*.

¹⁰ Hemen kontuan hartu behar da *bage* dela jatorrizko forma, arkaismotzat oraino ere Aezkoan atxikitzen dutena (Camino, 2003: 77).

Halarik ere, franko gehiago dira Ameskoabarreneko hizkera Iñaki Caminok nafarreraren barrenekotzat jotzen duen hego-nafarrerarekin lotzen duten ezaugarriak, nahiz eta horietako batzuk azpieuskalki hau gainditu eta nafarrera orokortzat har daitezkeen:

- Donostiako dialektologialariak (2004: 66) hego-nafarreraren bere-bezko ezaugarrien artean aipatzen duen *gauren* “izenordain indartu analogiko”-tik ateratako *gouren* (ikus beheago).
- *-taco* prolatiboa.
- Azpieuskalki horren eremua gainditzeko duen *-ki* aditzatzizkia (*idugu*).
- Hego-nafarrera baino zabalagoa den sudurkaririk gabeko *-ki* soziati-boa.
- Aditzaren eta osagarri zuzenaren arteko komunztadura (*mandamentu santuac gordeceitunac; [Ayta eta Ama] Obedecitu, socorritu eta erreverenciazeitunac*).
- (*D*)*ugu* adizkia.
- *Eutsi* edo *egin* aditz laguntzaileen formen ordeztasunak **edun* eta **erazan*-enak kausitzea (Araiako Garzia de Albenizen testuan **-i*- erroa dutenak *eutsi*-renekin eta *egin*-enekin batean agertzen dira, eta **ezan* ere bada; Altsasun ere ibiltzen zen *egin*, Zuazo, 1994: 335).
- Partizipioan *-itu* izatea, ez *-idu*.
- Aditzizenean *-tze(n)* (nahiz eta dardarkari ondoan *-te(n)* ere agertu: *ecartedauenac*), *-tzea*, *-tzia* izatea, ez Arabako izkribuetan ohikoak diren *-ita*, *-etan*, *-ketan*, *-zaiten*, *-tea*. Hemen, halarik ere, gogoan hartu behar da Gamizek eta Portalek *-tzen* dutela, eta Altsasun ere aldaera hori zegoela (Zuazo, 1994: 336); irudi luke, aieka honetatik, Ameskoabarreneko euskara erabat mendebaldeko hizkeratzat ezin har daitekeen Arabako sortaldeko hizkerarekin eta Burundakoarekin batera zihoala (Zuazo, 1993: 93-96).
- *Guzi* zenbatzailea dugu Artatzako testuan, ez *guzti*.
- Ameskoako *igor ez* Goñin eta Garesen ibiltzen zen, baina ez Gesalatzeko, ditugun lekukotasunen arabera betiere.

Bada ezaugarri bat mendebaldeko hizkeretan ohikoa dena, baina hego-nafarreraren eta ekialdeko hizkeretan ere kausitzen duguna¹¹, noiz usu noiz bakan: dardarkari ondoko *-ten* atzizkiari ari gara, Artatzako testuan ikusi gisan *ecartedauenac* baitugu (baina *ilze* ‘hiltzea’). Beraz, badirudi, atzizkiaren eremu banaketari oharthurik, aspaldian hedatuago egon eta Ameskoako euskararen gorde zen ezaugarri baten aitzinean gaudela.

Zenbait ezaugarri Ameskoabarrena Burundarekin lotzen dute:

- Etorkizko *-eu-* diptongoak *-ou-* ematea; Ameskoabarrenean ere zubi lana segur aski *-au-*k egin duke, Altsasun bezala, hots, Caminok (2004: 68) hego-nafarreraren “ezaugarri eksklusibo bateratzaile”-en artean sartzen duen aldaerak.

¹¹ Belapeire zuberotarrak, errate baterako, *egarte*, *erorte*, *ezarte*, *ekharte*, *igorte*... eta beste darabiltza, *isurtze*, *itzurtze*... eta abarrek batean. P. Agirre, *Athanase Belapeire: Catechima Laburra* (1696). *Autorearen Garaia, Nortasuna eta Idazlanak. Grafiak eta Fonologia. Edizio Kritikoa eta Hiztegia*, A. Eguzkitzak zuzendutako doktorego tesia.

- Zenbatzaileen sinkopan ere bat datoz Artatza eta Altsasu; ezaguna denez, hego-nafarreran aski hedaturik egon da sinkopa.
- *Gueyo* (Artatza) / *geiyoo*, *gaiyoo* (Altsasu).
- Ameskoabarrena eta Burunda mendebalderagoko hizkerekin batean doaz maiz, gorago aipatutako ezaugarrieci datxekienez: *-gi* aditzatzizkia, *bage*, *diranac*, *dau*, *ezer ez*.

Behin edo beste, Artatza eta Altsasu nafarrerarekin bat datoz: *-itu* bukaera (nahiz eta gero Burundako herrian Goierri aldera jotzen duen *-atu* / *-au* bikoiztasuna egon; Zuazo, 1994: 336), *-tze(n)* aditzatzizkia; Ameskoako eta nafarrerako *guzi* Altsasun ere ibiltzen da, baina *guzti*-rekin batean; Ur-diainen, gainera, *guzti* dago.

Bukatzeko, Zuazorekin (2003: 96) erran dezakegu Ameskoabarreneko euskara, Ameskoagoienekoa, Lanakoa, Burundakoa eta Arabako sortaldekoa bezala, tarteko eremu batean zegoela, mendebaldeko euskalkiak eta nafar euskarak bat egiten zuten eremuan, hain justu ere. Hemen beharbada behin-behineko mailakatze bat egin liteke, tarteko eremu honetako hizkera guztiak ere ez baitziratekeen berdin mendebaldeaireko edo nafarraireko. Guk, ditugun datu urrietan oinarriturik, honela dakusagu, sartaldeko euskaratik nafarrerara goazela: Garzia de Albeniz → Gamiz → Ameskoagoiena, Lana → Ameskoabarrena, Burunda.

BIBLIOGRAFIA

- AGUD, M & MITXELENA, K. (1958): *Dictionarium Linguae Cantabrigiae (1562) (DCL)*, «Julio Urkixo» Mintegiaren argitalpenak, Donostia. Knörr & Zuazo (1998)-n ere heldu da Landuchioren hiztegia, oraingoan gehigarritzat Elena Martinez de Madinak paratutako euskara-gaztelania zerrenda ere baduela, jatorrizko gaztelania-euskara ez ezik.
- ALDAI, G. (1999): “Hegoaldeko Goinafarrera zaharra: aditz laguntzaileekiko ezaugarri zenbait”, *FLV* 81, 263-274.
- ALTUNA, F. (1998): “Garzia de Albeniz araiarraren eskuizkribua”, in Knörr & Zuazo (1998), 107-123 eta 517-523.
- BERIAIN, J. (1621): *Tratado de como se ha de oyr missa*, Iruñea. Hordagok Donostian 1980an egindako argitalpen faksimilea erabili dugu.
- (1626): *Dotrina Christioarena euscaras*, Iruñea.
- BIDADOR, J. (2001): “El decálogo de Baríndano”, *Diario de Noticias* egunkarian argitarata emandako artikuluxka, azaroaren 18an, 40-41. orrialdeetan.
- CAMINO, I. (2004): *Hego-Nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- ELIZALDE, F. (1735): *Apezendaco Dotrina Christiana Uscaras*, Iruñea. *FLV* 64ko 41-65. orrialdeetan jatorrizkoaren argitalpen faksimilea dago.
- ERDOZIA, J. L. (2004): *Sakanako Hiztegi Dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Euskaltzaindia, Villatuerta.
- (2004b): “Irañetako euskara”, ale honetan berean.
- ETXEPARE, B. (1980 [1545]): *Linguae vasconum primitiae*, Patxi Altunak paratu edizio kritikoa, Mensajero, Bilbo.
- GARZIA DE ALBIZU, B. (2004): “El catecismo de Artaza (nueva evidencia del euskera en Améscoa)”, ale honetan berean dator lana.
- GOIKOETXEA, I. (1982): *Juan Bautista Gámiz Ruiz de Oteo. Poeta Bilingüe Alavés del Siglo XVIII*, Arabako Foru Aldundia & Euskaltzaindia, Gasteiz.
- IZAGIRRE, K. (1967): “Altsasuko euskeraren gai batzuk”, *ASJU* 1, 45-97.
- KNÖRR, H. & ZUAZO, K. (1998): *Arabako Euskararen lekukoak. Ikerketak eta Testuak / El Euskara Alavés. Estudios y Textos*, Euskal Azterlan Bilduma-7, Eusko Legebiltzarra, Gasteiz.

- LAKARRA, J. A. (1994): “Bizkaieraren lekua beste euskalkien artean iraganeko garaietan”, *Bizkaieraren Lekua Gaur*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 15-34.
- LEKUONA, M. (1973): “Textos Vascos del siglo XVIII en Tierra Estella”, *FLV* 15, 369-390.
- LIZARRAGA, J. (1990): *Urteko Igande Guzietarako Prediku Laburrak (UIGPL)*, F. Ondarrak paratu argitalpen kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbo.
- (1994): *Jesus, Maria eta Santuen Bizitzak (JMESB)*, F. Ondarrak eta J. Apezetxeak paratu argitalpena, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- MITXELENA, K. (1955): “La Doctrina cristiana de Betolaza”, *ASJU* II, 43-60. J. Lakarrak argitaratutako *Sobre Historia de la Lengua Vasca*-n ere agertu zen, 824-837 orrialdeetan; orobat H. Knörr eta K. Zuazoren *Arabako Euskararen lekukoak. Ikerketak eta Testuak / El Euskara Alavés. Estudios y Textos* lanean, 467-501 orrialdeetan.
- (1964): *Textos Arcaicos Vascos (TAV)*, Minotauro, Madril.
- ONDARRA, F. (arg.) (1982): “Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi”, *FLV* 39, 133-228.
- PEREZ DE LAZARRAGA, J. (2004 [c. 1567]): Juan Perez de Lazarraga Larrea Dorretzeko jaunaren eskuizkribua [1564-1567]; Gipuzkoako Foru Aldundiak sarean ezarri du lan hau, <http://www.gipuzkoakultura.net/lazarraga> helbidean. Bada, orobat, P. Urkizuren argitalpen egin berria (Dianea & Koplak, Erein, Donostia, 2004), baina edizio hau kontuz erabiltzekoa da.
- SALABERRI, P.: (1994): “Elizalderen Apezendaco doctrina christiana uscaras”, *FLV* 65, 7-39.
- (1998): “Arabako mugako nafar hizkeren inguruan”, in *Nafarroako Hizkerak*, I. Camino arg., UEU, Bilbo, 49-87.
- (2000): “Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan”, *Dialektologia gaiak*, K. Zuazo arg., Arabako Foru Aldundia, Gasteiz, 223-259.
- SATRUSTEGI, J. M. (1991): “El euskera en Tierra Estella. Evolución histórica”, *Euskera* XXXVI, 93-124.
- ZUAZO, K. (1989): “Arabako euskara”, *ASJU* XXIII-1, 3-48.
- (1994): “Burundako hizkera”, in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.), *Euskal Dialektologia Kongresua*, *ASJU*-ren gehigarriak, 28. zkia., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 297-364.
- (2003): *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*, Elkar, Donostia.

LABURPENEA

Artikulu honetan Artatzen urte luzetan bikario izandako Juan Vicente Diaz zudairiarren testuaren transkripzioa eta hizkuntza azterketa egiten dugu. Bigarren eginkizunerako irispidean ditugun Ameskoaren inguruko testu eta materialekin alderatu dugu: Nafarroan Eraulgo 1564ko izkribu ttipiarekin, Elizalderen dotrinarekin, Muzkiko idazkiekin eta Burundako datuekin, eta Araban Lazarraga, Landuchio, Betolatza, Garzia de Albeniz eta Gamizen izkribuekin. Ateratzen dugun ondorioa da Ameskoabarreneko hizkera men-debaldekoaren eta (hego-)nafarreraren arteko bidegurutzean aurkitzen zela.

RESUMEN

En este artículo transcribimos primero el texto del zudairiarra Juan Vicente Díaz, vicario de Artatza durante largos años y hacemos después un análisis lingüístico del mismo. Para esto lo hemos comparado con los materiales que teníamos a nuestro alcance: en Navarra lo hemos comparado con el pequeño escrito de Eraul de 1564, con la doctrina de Elizalde, con los textos de Muzkiz y con los datos que conocemos de Burunda, y en Álava con los escritos de Lazarraga, Landuchio, Betolatza, García de Albéniz y Gámiz. La conclusión que sacamos es que el habla de Ameskoa Baja se encontraba en el cruce de los dialectos occidentales y navarro (meridional).

RÉSUMÉ

Dans cet article nous transcrivons d'abord le texte de Juan Vicente Díaz, de Zudaire, vicaire de Artatza pendant de longues années, et nous faisons ensuite une analyse linguistique de celui-ci. Pour en venir là nous l'avons comparé avec les matériaux que nous avons à notre portée: en Navarre nous l'avons comparé avec le petit texte d'Eraul de 1564, avec la doctrine d'Elizalde, avec les textes de Muzkiz et avec les données que nous connaissons de Burunda, et en Alava avec les narrations de Lazarraga, Landuchio, Betolatza, García de Albéniz et Gámiz. La conclusion que nous en tirons est que le langage de l'Ameskoa Basse se trouvait entre les dialectes occidentaux et navarrais (méridional).

ABSTRACT

The present article consists of a transcription of the text by the “zudairiarra” Juan Vicente Díaz, for many years vicar of Artatza, followed by a linguistic analysis. This has been done by comparing the text with other material available to us: from Navarra, the short script of Eraul dating from 1564, the doctrine of Elizalde, the texts of Muzkiz and the information known to us about Burunda, and from Álava, the writings of Lazarraga, Landuchio, Betolatza, García de Albéniz and Gámiz. The article concludes that the speech from Améscoa Baja was at the crossroads between the Western and the Navarran (Southern) dialects.